


# Ez ote garen gu mundua galduko dugunak

1, Ideograma horretako erdiko puxikan laburbiltzen den **tesia** garatu nahi duzu egunkarian argitaratzeko iritzi-artikulu baterako. Idatzi aurretik, jakina, idazkiaren eskematxoa (mapa) egin duzu eta idatziari indarra emateko baliabideak bildu dituzu.

Egin eskema posible hori eta erabiliko zenituzkeen baliabideen aipamena. Ondoren alderatu zure ikaskideek egin dituzten eskemekin. Zertan etorri zarete bat? Zer ideia izan dituzte zure ikaskideek zuri bururatu ez zaizkizunak?. (Nahi duzun forma eman, azpiko mapa mentala edo zuretzat egokiagoa dena).



2, Orain irakur ezazu tesi hori garatzeko Anjel Lertxundik Berrian argitaratutako artikulu mamitsu eta dotorea. Lehen irakurketa burutzean, erantzun galderei.

# berria



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB


Iritzia

HIRUKO (H)ITZA

## Ez ote garen gu mundua galduko dugunak



Anjel Lertxundi



MAITE MUTUBERRIA



### Online, laino on

Etxeko inprimatzailea tonerrik gabe gelditzen ari da, guardasola galdu zuen asteburuan, alabari liburu bat agindu diote institutuan, gaileta integralak bukatu dira etxean, alkandora bat eta audifonoaren pilak ere erantsi ditu erosi beharrekoen zerrendan. Di-da, eta horien guztien eskaria egin du (demagun) Amazon-en. Ondo ezagutzen ditu multinazionalagatik esaten direnak. Badu bertan enplegatzen diren langileen eta etxez etxe dabilzan pakete-banatzailen baldintza miserableen berri, badaki zein egoera esklabistetan fabrikatuta dagoen bertan saltzen den produktu asko, ez dauka inork esan beharrik gero eta kapitalismo bortitz gupidagabe baten aurrean (atzaparretan) dagoela... Baina egundoko pagotxa da, aizue, nork esaten dio ezetz pagotxa bati? Herriko dendetan baino merkeago erosten da bertan; gauean eskatu eta biharamun eguerdian etxean duzu eskatutakoa; zerbait itzultzen baduzu ez dizute esplikaziorik ere eskatzen...

1

«Ez naiz tontoa!» pentsatu du erosleak kanpaina ezagunaren hitzak bere eginez. Ez, eroslea ez da tontoa. Ezta bihozgabea ere: ezagutzen du lurralde urrutiko ume eta emakumeen esklabotza, eta gogotik arbuizatzen du haien egoera. Konplitektu sentitzen du herriko denda txikien egoera ere, benetan kupitzen da beren negozio txikien ateak itxi behar izan dituzten herritarrekin, badaki beste batzuk laster egongo direla derrigortuak erabaki bera hartzera. Baina zer egingo zaio, ezin zaio langarik jarri haizeari.

2

### Bezeria bezatua.

Erosleak haizeari dioen lekuan, entzun bedi kapitalismoari. Ez aspaldi, langarik jarri ezin zaion kapitalismo horrexek hirietako erdiguneak inbaditu zituen marka multinazionalekin eta inguruko dendak ateak ixten hasi ziren. Ordutik, hiriaren bihotz izoztuak kontsumo inkontrolatu batenak ditu taupadak. Eman dago abisua, laster inguruko, auzoetako, aldirietako dendek ere ateak itxi beharko dituzte, Baina hain da eroso erosketak online egitea! Halako batean, ordea, bezeria ondo bezatua daukatela ikusitakoan, Amazon eta antzekoen zerbitzua ez da batera adeitsua izango, ez ditu itzulerak onartuko, prezioak garestituko ditu, bidalketengatik kobratuko du, bere benetako bihotz miserikordiarik gabea erakutsiko du, pagotxak pagotxa izateari utziko dio, eta bertako bezero fidela auzoan zeukan toner-saltzailearekin gogoratuko da, herriko tomateak saltzen zituen dendariarekin, liburu-dendan antolatzen ziren ekitaldi interesgarriekin. Herriko kaleetan apenas egongo den giza erlategi egunerokoaren aztarrenik, denok ariko baikara gure etxeetako isolamendutik online konektatuta, baina ez eskariak egiten, protestatu nahi eta ezinean baizik gure erosketa iritsi ez delako, produktu gehienak ikaragarri garestitu dituztelako, ahots metaliko batek ere atenditzen ez dituelako gure protestak, eta, ororen gainetik, salatzen baditugu mehatxu egingo digutelako, ordurako den-dena jakingo baitute gutaz...

3

4

Auzoak euri azidoa sentituko du kristaletan, eta etxean aterkirik ez eskura. Guardasol sendo askoak nahiko modu onean saltzen zituen solas atsegineko dendari gailegoak esaten zuena etorriko zaio gogora: tonto jaio eta tontoagoak izaten saiatzen gara, compaÑeiro!

# berria



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB

## Ez lekuak eta leku ohiak.

- 5 Auzoa etxetik garajera jaitsi da zuzenean, autoa hartu du. Ateri da jada, baina bere kalean ez dabil inor; etxe ingurukoetan ere, apenas. Hainbat lokal txiki, pertsiana metalikoak jaitsita. Zabalik dauden dendetan ez da mugimendu handirik. Nonbaiten irakurria du soziologoek-eta ez lekuak deitzen dietela jendearen joan-etorriko lekuei, sustrairik ez dutenei. Jendeak ez du sustrairik egiten aireportu, zentro komertzial, nortasunik gabeko hotel erraldoi, autopista eta horrelakoetan. Hortik izena: ez lekuak dira.
- 6 Auzoak pentsatu du ez leku bateko jendearen joan-etorri estresagarria baino are okerragoa dela bere kaleko jende falta. Eta baita tristeagoa ere. Lehen bizitza handiko kalea zen, arnasa zuen, saltsa, bertan egiten zituzten ia erosketa guztiak, ezagunekin gelditzen ziren berriketan, kaleko festa ere ospatzen zuten urtean behin. Bukatu da hori guztia. Ez da jada kale. Sustraiekin batera, iragana galdu zuen, ez du ez presenterik ez etorkizunik. Ez da sentitzen fruta-zaleak bistara jartzen zituen fruituen usainik. Leku ohia da.
- 7 François Villonek galdetzen du 1463 urte inguruan: mais où sont les neiges d'antan? Non dira antzinako kaleak?, galdetuko dugu guk laster. Ez da nostalgia izango, zeren galderaren atzean beste galdera batzuk, askoz ere lazgarriagoak, egongo baitira: non da betiko gure mundua, zer egiten ari gara berarekin? Eta gure erantzuna, beste galdera batez formulatua, ezin zinikoagoa da: nola esango diot ezetz pagotxa bati, nola kontsumoari, nola kontaminazioari, nola (ustezko) aurrerapenari? Ezin zinikoagoa, bai: jakin badakigu uzten ari garen oinordetza kriminala dela gutiz.
- 8 Oraintsu arte uste genuen naturaren indar telurikoak lehertuko zuela planeta. Edo beldur genien unibertsoko auskalo zein bazterretatik etor zitezkeen inbaditzaileei. Oraintsu arte ez zitzaigun burutik pasatzen mundutarrok izango garela mundua hondatuko dugunak. Oso sentimendu berria da. Gu, gure etxearen, gure kaleen, gure planetaren suntsitzaile. Eta hartan segitzen dugu. Egoskor. Atsedunik gabe. Nork kontatuko du hondamendia, mundua suntsitu genueneko? Guk, noski, ez, baina guk utziko ditugun hobi nuklearrek, bai. Eta zabor oihanek, itsas ustelduek, sufre usaineko zeruak eta gure lehergailuek utzitako infernurainoko kraterrek. Entzulerik gabeko kontakizun begi-bistakoa izango da, inoiz inor inondik baletor...
- 9 Akzio ttiki ustez garrantzi gabeak egon ohi dira tragedia askoren oinarrian. Nola esan ezetz pagotxa bati, nola utzi kontsumitzeari, nola uko egin autoari, nola aurre egin erremediorik ez omen duenari? Ez da txarra Wislawa Szymborskaren poema labur bateko abisua: «Atzo gaizki portatu nintzen kosmosarekin./Egun osoa pasatu nuen ezertaz galdetu gabe,/ ezertaz harritu gabe».
- 10 Zenbat egun ezertaz ohartu gabe, zenbat jende ezertaz harritu gabe, zenbat oker ttiki (ustez) garrantzi gabeak amildegira bidean...

a) Zein da ez lekuen eta leku ohien arteko aldea? Erantzuna partekatu ikaskidearekin.

---



---

b) Ze metafora baliatzen du Lertxundik kapitalismoaren bortizkeriari erreferentzia egiteko? Azaldu lotura eta partekatu taldean.

---



---

c) Zerekin identifikatzen dituzu Lertxundik darabiltzan esapide hauek? Osatu taula binaka eta arrazoitu taldean zuen erantzunak.

	Lehenko munduarekin	Etorkizuneko munduarekin
Giza erlategi egunerokoa		
Bezeria ongi bezatua		
Oinordetza kriminala		
Hiriaren bihotz izoztua		
Solas atsegineko dendariak		
Euri azidoa kristaletan		

**d) Nolakoa da narratzailea? Identifikatu testuan narratzaile-motak (irakurlearekiko distantzia). Identifikatu zein paragrafoetan dagoen bakoitza.**

---

---

**e) Noren ahotsak dakartza testura Lertxundik? Zein helbururekin? Komentatu binaka eta, ondoren, partekatu talde handian.**

---


---

**2. Erreparatu artikulua izenburuari. Zer ezkututzen da esaldi horretan? (Partekatu ikaskideekin)**

---

---

**3. Egin testuaren laburpena 50–70 hitzetan, testuinguruaren berri emanez: egilea, adierazitakoa eta non idatzi duen aipatuz.**



**4. Azpimarratu testuan bi (gutxienez) pasarte, irudi, metafora, arrazoi... bereziki deigarriak iruditu zaizkizunak (zure altxortegian gordetzeko modukoak) eta partekatu zure ikaskideekin.**



# Erantzunak

## 1.- Irakurri testua eta galderei erantzun:

### a) Zein da ez lekuen eta leku ohien arteko aldea? Erantzuna partekatu ikaskidearekin.

Ez lekua nortasunik gabeko lekuak dira, joan-etorriko lekuak, sustrairik gabeak. Leku ohiak, aldiz, iragana galdu duten tokiak dira, jada jenderik gabekoak, ez dute presenterik ez etorkizunik.

### b) Ze metafora baliatzen du Lertxundik kapitalismoaren bortizkeriari erreferentzia egiteko? Azaldu lotura eta partekatu taldean.

Ezin zaio langarik jarri haizeari. Haizeari hesiak jartzea alferrikakoa den bezala, kapitalismoari jartzea ere hala dela dio, dena inbaditzen baitu kontsumo inkontrolatuak.

### c) Zerekin identifikatzen dituzu Lertxundik darabiltzan esapide hauek? Osatu taula binaka eta arrazoitu taldean zuen erantzunak.

	Lehenengo munduarekin	Etorkizuneko munduarekin
Giza erlategi egunerokoa	✔	
Bezeria ongi bezatua		✔
Oinordetza kriminala		✔
Hiriaren bihotz izoztua		✔
Solas atsegineko dendariak	✔	
Euri azidoa kristaletan		✔

Giza erlategi egunerokoa: espresio honek erreferentzia egiten dio herriko komertzioek eragiten duten jendearen joan-etorriari. Dendek ematen dute kale-bizitzaz eta harremanez ari da, eta orain arte herrietako komertzioek sustatu dutena da.

Bezeria ongi bezatua: etorkizunarekin lotzen da. Multinazionalak jendea erabat menperatua izango duten uneari egiten dio erreferentzia. Online ibiltzearen ondorioz, den-dena jakingo baitute gutaz.

Oinordetza kriminala: etorkizunarekin lotzen da, izan ere, gure ondorengoei utziko dieguna planetaren suntsiketa besterik ez da izango.

Hiriaren bihotz izoztua: etorkizunarekin lotzen da. Multinazionalen eraginez, gure hirietan gupidarik gabe sartuko den kontsumismo inkontrolatua baizik ez da egongo, kaleetako bizitasunaren eta jendearen arteko harremanen kaltetan.

Solas atsegineko dendariak: lehenengo munduarekin du lotura. Komertzio txikiak eta herriko dendek eskaintzen duten zerbitzuari egiten dio erreferentzia.

Euri azidoa kristaletan: etorkizuneko munduak ekarriko duen ondorioetako bat da.

### d) Nolakoa da narratzailea? Identifikatu testuan narratzaile-motak (irakurlearekiko distantzia).

Narratzailea 3. pertsona (ja testu osoan). Distantzia hartzen du kontatzen duenarekiko.

Lehen pertsona (plural maiestatikoa): 7. Eta 8. paragrafoetan. Narratzailea munduaren parte da, beraz guztiok gara gertatzen ari denaren erantzule, aurretik ezarritako distantzia hori desagertu egiten da.

### e) Noren ahotsak dakartza testura Lertxundik? Zein helbururekin? Komentatu binaka eta, ondoren, partekatu talde handian.

Francois Villonena: "mais où sont les neiges d'antan?" Villonek esandakoaren hitzen parekoa edo antzekoa litzateke "Non dira antzinako kaleak?" galdetzea. Mundua, jokabideak, ohiturak nola aldatzen diren ikusarazteko baliatzen du antzekotasun hori.

Wisława Szymborska: "Atzo gaizki portatu nintzen kosmosarekin./ Egun osoa pasatu nuen ezertaz galdetu gabe, /ezertaz harritu gabe". Poema horren esanahiak bete-betean azaltzen du eguneroko oker txikiak eragiten dutela suntsiketarik beldurgarriena. Eguneroko jarrera desegoki horiei jarri behar zaiela arreta esateko baliatzen du.

## 2. Izenburua: "Ez ote garen gu mundua galduko dugunak"

**Garen** aditz horrek menpekora dela dio eta, beraz, elipsian jarri du aditz nagusia. Hauetako bat izan daiteke: "zalantza dut" "ez dakit". Izan ere, zehar galdera moduan dator -n atzizkia hartuta.

Izenburuari behar duen indar berezia eman nahi dio idazleak horrela, ez da ohikoa, baina jakinmina sortzen du elipsi horrek.

## 3.- Egin testuaren laburpena 50-70 hitzetan, testuinguruaren berri emanez: egilea, adierazitakoa eta non idatzi duen aipatuz.

Lertxundik gure munduaren suntsiketara garamatzaten jokabideen kritika zorrotza egiten du Berrian argitaratu duen artikuluan. Kapitalismoaren hatzaparretan harrapatuta, erosokeriara eta geurekoikeriara emanak, konbultsiboki kontsumituz bizi garela kritikatzan du. Horrek guztiak ez du ezer onik ekarriko: mundua hondatuko da, lekuak leku ohi bihurtuko dira, hutsak, bizirik gabeak. Hori guztia jakinda, hala ere, gauzak aldatzeko ahaleginik egin gabe egoskor jarraitzen dugula dio, amildegira garamatzaten eguneroko okerrak, txikiak badira ere, errepikatzen.